


1

Aitona Bixar



Aitona Bixarrek bizar zuri luzea zuen, dotore-dotorea, eta buruan, berriz, bizpahiru ile besterik ez.

Aitona Bixar harro zegoen bere bizar zuriarekin, eta egunero garbitzen zuen xanpuarekin, eta egunero orrazten zuen ispiluaren aurrean.

Halako batean aitona Bixar gaixotu egin zen.

- *Botika hau hartu behar duzu*- esan zion medikuak.

Aitona Bixar botika hura hartzen hasi zen. Hasieran dena normal zihoan, baina handik egun batzuetara...

- *Aitona, bi ile beltz dauzkazu buruan*- esan zion bilobak.

Aitona ispilura joan zen. Egia! Bi ile beltz, berri berriak, zituen buruan. Eta bi ile zuri gutxiago zeuzkan bizarrean.

Hurrengo egunean, beste bost ile beltz zeuzkan buruan, eta hurrengoan beste hamar. Baina, aldi berean, bizarrean ile gutxiago zeuzkan.

Egun batzuen ostean, adats beltz luze bat atera zitzaion aitonari buruan, baina bizar zuria erori egin zitzaion.

Aitona Bixar haserre zegoen. Bere bizar zuri luzea nahi zuen .

Botika hartzeaeri utzi zion azkenean aitonak. Eta, egun batzuen ostean, berriro bizar zuri luzea zeukan Aitona Bixarrek eta, buruan, berriz, bizpairu ile besterik ez.



Irakurgaia lantzen

TESTUTIK TIRAKA

1- Galdereei erantzun.

- Nor da ipuineko protagonista?
-
- Nolako bizarra zuen aitona Bixarrek?
-
- Zer egiten zuen egunero bere bizarrarekin?
-
- Zer agindu zion medikuak gaixotu zenean?
-
- Zer gertatu zen botika hartzen hasi zenean?
-


2- Deskribatu irudia.



Aitona Bixarrek bizar

eta du.

Buruan ile



Aitona Bixarrek

3- Idatzi labur labur zer gertatu zitzaion aitona Bixarri.

IPUINETIK HARAGO

4- Asmatu beste amaiera bat ipuinerako.

Aitona Bixarrek botika hartzen segitu zuen eta...

HITZEN MAGIA



5- Lotu.

- Nire aita eta amaren aita
- Nire aitaren arreba
- Nire gurasoen beste alaba


IZEBA - IZEKO

AITONA

ARREBA



6- Lotu esanahi bera duten hitzak: SINONIMOAK



GARBITU

SANO

OSASUNTSU


TXUKUNDU

ZURIA

SENDAGAIA

BOTIKA

ARGIA

Hizkuntzaren erabilera. NOR eta NORK**1-** Begiratu irudiari eta erantzun.

- Nor dago ilaran LEHEN TOKIAN?
—
- Nor dago BIZARDUNAREN AURREAN?
—
- Nor dago ilaran AZKEN TOKIAN?
—
- Nor dago ilaran NORaren ATZEAN?
—

2- Jarri **K** letra atzean.**NORK**ni ----- **nik**

zuek -----

zu -----

haiek -----

hura -----

Patxi -----

gu -----

Leire -----

3- Nola esaten zaio? Idatzi.

-DUN

BIZARRA dueNari

BIZARDUN

esAten zAio.



MOTXILA dueNari

esAten zAio.



BIBOTEA dueNari

esAten zAio.



TXANOA dueNari

esAten zAio.

4- Lotu.

Txoria	zuhaitz gainean dago.
Guk	ikasleak gara.
Gu	asko ikasten dugu.
Mikel	gauza asko ikasten dituegunero.
Mikelek	nire laguna da.

5- Idatzi esaldiak.

➤ **Nik**

➤ **Atzo**

➤ **Amak**

➤ **Irakasleak**

➤ **Egun batean**